

ARABAKO ERRIOXA

ARABA

A•40

Ebro Ibaia



Ebro ibaia Sobrongo kareharrizko haitzen artean hasten da gure autonomia-erkidegoa zeharkatzen. Toki horretan putre ugari ikus daitezke gailurretan hegan egiten. Aurrerago Arabako Errioxan sartzen da, eta gizakiaren eragin handia duten labore-lurren artean igarotzen. Halere, badira ondo kontserbatutako erriberako hainbat eremu eta

ibaiertzeko baso, haltzez, makalez eta sahatsez osaturik daudenak, sasi eta lezkadi zabalekin batera. Ibaiertz korapilatsu horietan fauna oparoa bizi da, Mediterraneoan espezieen dibertsitateagatik eta gure Erkidegoan gutxi ikusten diren espezieak direlako, bereziki interesgarria den fauna, hain zuzen.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, eskualde naturalak.
- Mediterraneo klima: ezaugarriak, landaredian eta faunan duen eragina.
- Ibaiertzeko basoak: zuhaitzen identifikazioa, hari loturiko landaredia.
- Espezieak eta komunitateak: arrainak, hegaztiak, ugaztunak.
- Erriberen babesean landarediak duen garrantzia.
- Baso-ustiapenak: makaldiak.
- Ekosistemarentzako arriskuak: nekazaritza intentsiboa, ureztapenak, aterakuntzako jarduerak, isurketen ondoriozko ibaiaren kutsadurak.
- Ebro ibaia: paisaiak, guneak, garrantzi historikoa eta kulturala.
- Arabako Errioxako nekazaritza: mahastiak, mahastigintza-ardogintzaren sektorea, mahastiko lanak, eskualdean duen garrantzia.
- Arabako Errioxako landa-herri bat, Lapuebla de Labarca: historia, ekonomia-jarduera.